# Xedapen Orokorrak

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 5602

165/2007 DEKRETUA, urriaren 2koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortu eta horren funtzionamendua, osaera eta eginkizunak ezartzen dituena.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 102. artikuluan xedatzen denez, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren barruan Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortuko da, haurrak eta nerabeak zaintzeko zeregina beren gain hartuta duten erakunde publiko eta gizarte-eragileek parte hartzeko foro berezi gisa, batez ere babesgabetasunean dauden haur eta nerabeen arreta hartzeko eta arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko arloan diharduten erakunde publiko eta gizarte-eragileentzat, eta Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen dio Batzorde horren osaera eta eginkizunak zehazteko.

Horretaz gain, ezinbestekoa da Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren eginkizunak zehaztea, sorrerako helburua betetzeko lanak optimizatu nahi badira.

Batzorde hau kontsultarako eta aholkularitzarako organoa izango da Eusko Jaurlaritzak proposatu edo eman behar dituen lege-egitasmo, xedapen orokor eta erregelamenduetarako. Batzordeak hausnarketarako eta koordinaziorako gunea izan nahi du, alde batetik, haurren arloan diharduten gizarte-eragile eta erakunde sozialen, eta bestetik Erakunde eta Administrazio Publikoen artean, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteari dagokionez, konpromisoa hartu duten alderdi guztien arteko lana eraginkorragoa izan dadin.

Horren ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren bat etorriz, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urriaren 2an eginiko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen helburua honako hau da: Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala sortu eta horren eginkizunak, osaera eta funtzionamendua ezartzea.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 5602

DECRETO 165/2007, de 2 de octubre, de creación, funcionamiento, composición y establecimiento de funciones de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia.

La Ley 3/2005 de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia, en su artículo 102, establece que en el seno del Consejo Vasco de Bienestar Social se constituirá la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia como foro específico de participación de las instituciones públicas y los agentes sociales implicados en la atención a la infancia y la adolescencia, en particular en la atención a niños, niñas y adolescentes en situación de desprotección y en la atención socioeducativa a personas infractoras menores de edad, y faculta al Gobierno Vasco para determinar la composición y el funcionamiento de la misma.

Además se hace necesario concretar las funciones de la Comisión Permanente Sectorial de Atención a la Infancia y a la Adolescencia a los efectos de optimizar las labores de la misma con la finalidad de cumplir el objeto para el que se crea.

La Comisión se constituye como órgano de consulta y asesoramiento respecto de los proyectos de ley, disposiciones generales, reglamentos y políticas públicas que hayan de ser propuestos o dictados por el Gobierno Vasco. Esta Comisión pretende ser un espacio de reflexión y coordinación entre los distintos actores sociales, entidades sociales implicadas en materia de infancia, Instituciones y Administraciones Públicas, a fin de lograr un trabajo más eficaz entre todas las partes comprometidas en la atención y protección de la infancia y la adolescencia.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del 2 de octubre

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto del presente Decreto es crear y establecer las funciones, así como la composición y funcionamiento de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren barruan sortuko da, haurrak eta nerabeak zaintzeko zeregina beren gain hartuta duten erakunde publikoek eta gizarte-eragileek parte hartzeko foro berezi gisa, batez ere babesgabetasunean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen arreta hartzeko eta arauhausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko arloan diharduten erakunde publiko eta gizarte-eragileentzat.

*2. artikulua.*– Eginkizunak.

Batzordeari dagozkio honako eginkizun hauek:

1.– Haurren eta nerabeen arloko lege-xedapenei buruzko informazioa ematea, baita lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa duten programa orokor edo sektorialei buruzkoa ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko garatu beharreko jardunen proposamenak eta orientazio estrategikoko proposamenak egitea.

3.– Haurren eta nerabeen arloan esku hartzen duten eragileen iradokizunak, informazioa eta proposamenak jasotzea, eta haiei ere ematea.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek haurrei eta nerabeei dagokienez garatzen dituzten arau, programa eta jarduerei buruzko informazioa biltzea.

5.– Haur eta Nerabeen Behatokiak informazioa ematea aldizka, organo horrek egindako txosten eta azterlanen bidez.

6.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren jarduerak azalduko dituen Urteko Memoria onartzea, eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Sailari aurkeztea.

7.– Haurren eta nerabeen inguruko gaiekin loturik sortzen diren Lurralde eta Udal Kontseiluekin koordinatzea.

8.– Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea garatuta esleitzen zaion edo indarrean dagoen araudiak eslei diezaiokeen beste edozein eginkizun.

*3. artikulua.*– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren osaera.

1.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialean honako erakunde hauek izango dute ordezkaria:

a) Jaurlaritzak.

b) Foru Aldundiek.

c) Udalek.

La Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia se constituye en el seno del Consejo Vasco de Bienestar Social como foro específico de participación de las instituciones públicas y los agentes sociales implicados en la atención a la infancia y la adolescencia, en particular en la atención a niños, niñas y adolescentes en situación de desprotección y en la atención socioeducativa a personas infractoras menores de edad de la Comunidad Autónoma Vasca.

*Artículo 2.*– Funciones.

Corresponde a la Comisión las siguientes funciones:

1.– Informar sobre las disposiciones normativas en materia de infancia y adolescencia, así como los programas generales o sectoriales cuyo ámbito territorial sea la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Realizar propuestas de orientación estratégica y de actuaciones a desarrollar para la atención y protección de la infancia y la adolescencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– Aportar y recibir sugerencias, información y propuestas de los agentes intervinientes en materia de infancia y adolescencia.

4.– Recabar información sobre normativa, programas y actividades que lleven a cabo las distintas Administraciones Públicas Vascas en materia de infancia y adolescencia.

5.– Ser informado periódicamente por parte del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia mediante la remisión de informes y estudios elaborados por este órgano.

6.– Aprobar y presentar ante el Departamento competente en materia de servicios sociales una Memoria Anual explicativa de las actividades de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.

7.– Coordinarse con los Consejos Territoriales y Municipales que se creen vinculados a temáticas relacionadas con la infancia y la adolescencia.

8.– Cualquier otra función que se le atribuya en el desarrollo reglamentario de la Ley 3/2005 de 18 de febrero de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia o pueda atribuirle la normativa vigente.

*Artículo 3.*– Composición de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.

1.– En la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia tienen representación:

a) El Gobierno.

b) Las Diputaciones Forales.

c) Los Ayuntamientos.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan haurren eta nerabeen eremuan lan egiten duten eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden erakunde sozialek.

e) Haurren eremuan lan egiten duten profesionalen erakundeek.

2.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialak guztira 26 kide izango ditu; erdiak Administrazio Publikoetakoak izango dira, eta beste erdiak d eta e idatz-zatietan aipatutako erakundeetakoak.

3.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kide izango dira honako hauek:

a) Administrazio Publikoen aldetik:

– Lehendakaria, gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den Saileko norbait izango da.

– Kide bat osasun-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat hezkuntza-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat justizia-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat familia-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat immigrazio-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat gazteria-arloan eskuduna den Saila ordezkatuz.

– Kide bat Foru Aldundi bakoitza ordezkatuz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen hiru ordezkari.

b) Erakunde sozialen eta erakunde profesionalen aldetik:

– Hamaika kide Euskal Autonomia Erkidegoan haurren esparruan diharduten hamaika erakundetatik.

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Laneko Diplomatuen Elkargo Ofizialak ordezkatuz.

– Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialak ordezkatuz.

c) Informazioa edo aholkularitza emateko soilik, landuko den gaiaren inguruko adituak joan daitezke Batzordearen bileretara —unean unean edo modu egonkorrean—, Batzordeko kideek onartuz gero. Aditu horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

*4. artikulua.*– Bileretarako deialdiak.

1.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialak urtean gutxienez ohiko bi bilkura egin-

d) Las entidades sociales que trabajan en el ámbito de la infancia y la adolescencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco y que están inscritas en el registro correspondiente.

e) Las organizaciones de profesionales que trabajan en el ámbito de la infancia.

2.– En su totalidad la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia se integra por 26 miembros procedentes, paritariamente, de las Administraciones Públicas y de las entidades citadas en los apartados d) y e).

3.– La Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia se compone de:

a) Por parte de las Administraciones públicas:

– La o el Presidente, ejercida por una persona del Departamento competente en materia de servicios sociales.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de sanidad.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de educación.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de justicia.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de familia.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de inmigración.

– Un o una vocal en representación del Departamento competente en materia de juventud.

– Un o una vocal en representación de cada Diputación Foral.

– Tres representantes de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Por parte de las entidades sociales y las organizaciones profesionales:

– Once vocales de once organizaciones que trabajan en el campo de la infancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Un o una vocal en representación de los Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Un o una vocal en representación de los Colegios Oficiales de Educadores y Educadoras Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) A efectos meramente informativos o de asesoramiento podrán asistir a las reuniones de la Comisión de forma puntual o estable, personas expertas en la materia que se trate si así lo aceptan las y los miembros de la Comisión. Estas personas asistirían con voz pero sin voto.

*Artículo 4.*– Convocatoria de reuniones.

1.– La Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia celebrará, al menos,

go ditu eta horietarako deialdia lehendakariak egingo du; halaber, lehendakariak ezohiko bilkuren deialdia egin dezake, arrazoiak badaudela iritziz gero edo Batzordeko kideen heren batek eskatuz gero.

2.– Lehendakariak egindako bilera-deialdia kide guztiei helaraziko zaie, ohiko bilkuren kasuan bilera izan baino egutegiko hamabost eguneko aurrerapenarekin, gutxienez, eta ezohiko bilkuren kasuan, bost eguneko aurrerapenarekin. Nolanahi ere, kide guztiak bertan badaude eta aho batez erabakitzen badute, bilera balio osoz eratuta geratuko da nahiz eta deialdia egiteko baldintza guztiak ez bete.

*5. artikulua.*– Batzordeko kideak izendatzea.

Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kideak honela izendatuko dira:

1.– Jaurlaritzaren sailetako ordezkari diren kideen izendapenak sailburu titularrek egingo dituzte, eta sailburuorde edo zuzendari izan beharko dute.

2.– Foru Aldundiak ordezkatuko dituzten kideak korporazio bakoitzaren funtzionamendu-arauei jarraiki izendatuko dira eta zuzendari edo antzeko kargua izan beharko dute.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak ordezkatuko dituzten kideak Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatuko ditu.

4.– Administrazio Publikoetan izendapenak egiteko garaian emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izateko ahalegina egin behar da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

5.– Gizarte Ongizateko zuzendariak haurren sektoreko erakundeei deialdia egingo die, haien artean izenda ditzaten dagozkien kideak.

Deialdia jaso duten erakundeek honako irizpide hauek hartu behar dituzte kontuan kideak izendatzeko garaian:

– Jardun-eremu geografiko zabala.

– Askotariko jardun-eremua: ahal dela, hainbat jardun-eremu espezifiko ordezkatuko dituzten erakundeen presentzia bermatuko da.

– Erakundeetako bazkideen eta boluntarioen kopurua.

– Haurren eta nerabeen eremuan lan-esperientzia izatea.

dos sesiones ordinarias con carácter anual, cuya convocatoria será realizada por la o el Presidente, quien podrá convocar, asimismo, cuando lo estime justificado o cuando así lo solicite un tercio de las y los miembros de la Comisión, la celebración de sesiones extraordinarias.

2.– La convocatoria de la reunión efectuada por la o el Presidente será dirigida a todas y todos los miembros, con una antelación mínima de quince días naturales respecto a la fecha de la sesión a convocar si fuera ordinaria, o de cinco días si fuera extraordinaria. En todo caso, quedará válidamente constituida la reunión, aún cuando no se hubieren cumplido los requisitos de la convocatoria, cuando hallándose reunida la totalidad de sus miembros, lo acuerden por unanimidad.

*Artículo 5.*– Designación de las y los miembros de la Comisión.

La designación de las y los vocales de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia se hará de la siguiente forma:

1.– Las y los vocales en representación de Departamentos del Gobierno serán designados por los respectivos Consejeros titulares y deberán ostentar cargo de Viceconsejero/a o Director/a.

2.– Las y los vocales en representación de las Diputaciones Forales serán designados de acuerdo con las normas de funcionamiento de sus respectivas corporaciones y deberán ostentar cargo de Director, Directora o similares.

3.– Las y los vocales en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco serán designados por Euskadiko Udalen Elkartea - Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

4.– Las Administraciones Públicas procurarán que exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su designación, tal como establece la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

5.– El o la Directora de Bienestar Social convocará a las organizaciones del sector de la infancia para que designen entre ellas a las y los vocales que les correspondan.

Las organizaciones convocadas designarán a las y los vocales teniendo en cuenta los siguientes criterios:

– Ámbito geográfico de actuación amplio.

– Diversidad en el ámbito de actuación: se garantizará en la medida de lo posible, la presencia de organizaciones representativas de modo específico de diversos ámbitos de actuación.

– Número de personas socias y de personas voluntarias de las organizaciones.

– Experiencia de trabajo en el ámbito de la infancia y la adolescencia.

– Haurren eta nerabeen eremuarekin loturiko foroetan edo kontseiluetan parte hartzea.

– Kideei dagokienez, oreka emakumeen eta gizonen artean, izendapenak egiteko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izateko ahalegina eginez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

6.– Erakunde profesionalek zuzenean Batzordearen esku utziko dute ordezkarien izendapena.

7.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kide guztiei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko izendapenak orekatuak izatea sustatuko du Gizarte Ongizateko zuzendariak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

*6. artikulua.*– Batzordeko kideen agintaldia.

1.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kideen agintaldia 4 urtekoa izango da eta agintaldiaren amaieran berriz hautatu ahal izango dituzte. Adierazitako epea igaro ondoren, kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, ondorengoen izendapenak ondorioak izan arte.

2.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kideen agintaldia honako kasu hauetan amaitu ahal izango da iraunaldia amaitu aurretik:

a) Kidea izendatu zuen administrazio publikoak, erakunde sozialak, sindikatuak, enpresa-erakundeak edo erakunde profesionalak erabakita agintaldia baliogabetzen edo eteten denean.

b) Karguagatik izendatutako kideen kasuan, izendatzeko arrazoia izan zen kargua galtzen denean.

c) Uko egitea, Batzordearen lehendakariari aurkeztuta.

d) Heriotza.

e) Epaileak kargu publikoak betetzeko gaitasungabetzea edo eginkizungabetzea dakarren ebazpen judizial edo administratibo irmoa hartzen duenean.

3.– Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuetan, ordezkatu beharreko kidearen agintaldia betetzeko falta den denborarako izango dira ordezkapenak.

*7. artikulua.*– Batzordeko kideak ordezkatzea.

Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkariez gain, haiek ez daudenean haien funtzioak beteko dituzten ordezkoak izendatu ahal izan-

– Participación en foros o consejos vinculados con el ámbito de la infancia y la adolescencia.

– Paridad entre mujeres y hombres respecto a los y las vocales resultantes, procurando que exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres en su designación, tal como establece la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

6.– Las organizaciones profesionales elevarán directamente a la Comisión el designamiento de sus representantes.

7.– El o la Directora de Bienestar Social promoverá que haya una designación paritaria entre mujeres y hombres del total de las y los miembros de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y a la Adolescencia, tal como establece la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 6.*– Mandato de las y los miembros de la Comisión.

1.– La duración del mandato de las y los miembros de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia será de 4 años, pudiendo ser reelegidos al término de su mandato. Una vez transcurrido el plazo referido, las y los miembros continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de sus sucesores o sucesoras en el cargo.

2.– El mandato de las y los miembros de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia podrá expirar antes de la finalización del período de duración de su cargo en los siguientes supuestos:

a) Revocación o cese acordado por la Administración pública u organización social, sindical, empresarial o profesional que lo nombró.

b) Pérdida de la condición en virtud de la cual fue nombrado, en aquellas o aquellos miembros que lo fueran por razón de su cargo.

c) Renuncia, presentada ante la o el Presidente de la Comisión.

d) Fallecimiento.

e) Resolución firme, de carácter judicial o administrativa, que conlleve la inhabilitación o suspensión para cargos públicos.

3.– En los supuestos previstos en el apartado anterior, las sustituciones que hayan de producirse lo serán por el tiempo que reste del mandato de la o el miembro sustituido.

*Artículo 7.*– Suplencia de las y los miembros de la Comisión.

Las Administraciones Públicas y las entidades sociales y organizaciones profesionales podrán designar, además de sus representantes en la Comisión Permanente

go dituzte Administrazio Publikoek eta erakunde sozial eta profesionalek.

*8. artikulua.–* Batzordeko kideen eskubideak.

Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kideek honako eskubide hauek dituzte:

a) Hitzarekin parte hartzea, botoa emateko eskubideaz baliatzea, Batzordearen bilkuretan boto partikularra ematea, eta botoaren esanahia eta arrazoiak adieraztea.

b) Aztertzen diren gaiei buruzko informazioa izatea, esanbidez eskatzen dutenean.

c) Batzordearen bilera baterako ezohiko deialdia eskatzea.

d) Proposamenak eta iradokizunak aurkeztea gai-zerrendan sartzearren edo gai jakin bat aztertzeko erabakiak hartzearren.

e) Batzordearen mandatuz joaten diren egintzetan Batzordea ordezkatzea; nolanahi ere, lehendakariari dagokio ordezkaritza-esleipen nagusia.

f) Bilkuretarako deialdiaren eta gai-zerrendaren berri izatea organo bakoitzerako ezarritako aurrerapenaz, eta gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzko dokumentuak, informazioa eta aurreko bilkurako akta izatea.

g) Galde-eskeak egitea.

h) Batzordearen bilkuretara joateagatik konpentsazio ekonomikoa jasotzea. Konpentsazio hori bateragarria izango da egiten diren bilkuretan parte hartzeak edo horietara joateak eragin ditzakeen bidaiei dagozkien kalte-ordainekin. Bertaratzeagatiko konpentsazioak nahiz bidaiei dagozkien kalte-ordainak zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako baldintzetan eta mugekin jasoko dira.

Dagokion kide anitzeko organoan sartu edo parte hartu beharra Administrazio Publikoan betetzen den karguak edo lanpostuak eragiten duenean, ez da ezein kasutan diru kopururik jasoko.

*9. artikulua.–* Batzordeko kideen betebeharrak.

Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko kideek honako betebehar hauek dituzte:

a) Batzordearen bilkuretara joatea.

Urte beraren barruan justifikatu gabe elkarren segidako bi bileratara edo bereizitako hiru bileratara joan ezean, kidea izendatu zuena kargutik kentzea proposatzeko komenigarritasuna aztertu beharko du nahitaez Batzordeak.

Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia, las personas suplentes, quienes ejercerán sus funciones en ausencia de aquéllas.

*Artículo 8.–* Derechos de las y los miembros de la Comisión.

Las y los miembros de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia tienen los siguientes derechos:

a) Participar con voz, ejercer su derecho al voto y formular su voto particular en las sesiones de la Comisión, así como expresar el sentido de su voto y los motivos que lo justifican.

b) Disponer de información de los asuntos que se traten cuando así lo soliciten expresamente.

c) Solicitar la convocatoria, con carácter extraordinario, de una reunión de la Comisión.

d) Presentar propuestas y sugerencias para su inclusión en el orden del día, así como para la adopción de acuerdos para el estudio de una determinada materia.

e) Ostentar, en cuantos actos hayan sido comisionados por la Comisión, la representación de ésta, sin perjuicio de la atribución general de representación que corresponde al o la Presidenta.

f) Conocer con la antelación que se señale para cada órgano la convocatoria y el orden del día de las sesiones y tener a su disposición los documentos e información sobre los temas que figuren en ellos, así como el acta de la sesión anterior.

g) Formular ruegos y preguntas.

h) Percibir una compensación económica en concepto de asistencia a las sesiones de la Comisión, que será compatible con las indemnizaciones correspondientes a los desplazamientos que pueda originar la participación o concurrencia a las mismas. Tales compensaciones por asistencia, así como la indemnizaciones por desplazamiento se percibirán en las condiciones, cantidades y límites previstos con carácter general en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

En ningún caso se devengarán asistencias cuando la pertenencia o participación en el órgano colegiado de que se trate esté determinada por el cargo o puesto de trabajo que se ocupe en la Administración pública.

*Artículo 9.–* Deberes de las y los miembros de la Comisión.

Las y los miembros de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia tienen los siguientes deberes:

a) Asistir a las sesiones de la Comisión.

La inasistencia no justificada a dos reuniones consecutivas o a tres discontinuas a lo largo del año será causa para que la Comisión examine preceptivamente la conveniencia de proponer el cese a quien designó al/la vocal.

b) Bidezko isiltasunarekin eta zuhurtziarekin jardutea, aztertzen diren gaien izaerak eskatzen duenean eta, bereziki, gai horiek ohore-eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea eraginpean hartzen dituztenean.

c) Araudi honen eta, hala badagokio, araudi hori garatzeko onartzen diren jarraibideei eta aginduei jarraiki jardutea.

*10. artikulua.–* Laneko Batzordeak.

1.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren erabakiaren bidez laneko batzordeak osa daitezke tratamendu espezifikoa eskatzen duten gai jakin batzuetan.

2.– Laneko batzordeen osaera, helburuak, funtzionamendu-arauak eta iraupena Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren eskumen dira.

3.– Esleitutako eginkizunak beteko direla bermatzeko beharrezkoa den egituraz hornituta egongo dira laneko batzordeak.

4.– Batzordeko kideek erabakitzen duten kideak zuzenduko ditu laneko batzordeak.

*11. artikulua.–* Batzordearen lehendakaria.

1.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren lehendakari gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den saileko kidea izango da; lagun horrek Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako eskubide osoko kide izan beharko du, aldi berean.

2.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren lehendakariak honako eskumen hauek ditu esleituta:

a) Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala ordezkatzea Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran eta Batzordean lantzen diren proposamen, erabaki, txosten eta gainerako gaiei buruzko informazioa helaraztea Osoko Bilkurara.

b) Batzordearen ordezkari izatea.

c) Batzordearen jardunak zuzentzea.

d) Batzordearen bileretarako deialdia egitea eta bilera horiek zuzentzea, bilerak behar bezala egiteko jarraibide orokorrak lantzea, eta eztabaidak moderatzea.

e) Batzordearen bileren gai-zerrenda egitea.

f) Bere sinadurarekin bilkuren aktak berrestea, erabakien igorpena eta argitalpena agintzea, eta bete daitezen xedatzea.

g) Batzordearen izenean erakundeetara, organismoetara, elkarteetara, agintariengana eta partikularrengana jotzea.

b) Actuar con el debido sigilo y reserva oportunos cuando así lo exija la naturaleza de los asuntos de que se traten y, especialmente, cuando afecten a los derechos al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.

c) Actuar conforme al presente reglamento y a las directrices e instrucciones que, en su caso, se aprueben en desarrollo del mismo.

*Artículo 10.–* Comisiones de trabajo.

1.– Mediante acuerdo de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia pueden constituirse comisiones de trabajo en determinadas materias que requieren un tratamiento específico.

2.– La composición, fines, normas de funcionamiento y duración de las comisiones de trabajo son competencia de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.

3.– Las comisiones de trabajo estarán dotadas de la estructura necesaria para garantizar el cumplimiento de las funciones que les sean atribuidas.

4.– Las comisiones de trabajo serán presididas por el o la vocal que determinen las y los miembros de la Comisión.

*Artículo 11.–* Presidente/a de la Comisión.

1.– Ejerce de Presidente o Presidenta de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia la persona del Departamento competente en materia de servicios sociales que deberá ser a su vez miembro de pleno derecho del Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social.

2.– La o el Presidente de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia tiene atribuidas las siguientes competencias:

a) Representar a la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia en el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social y mantener informado a éste de las propuestas, acuerdos, informes y demás asuntos trabajados en el seno de la Comisión.

b) Ostentar la representación de la Comisión.

c) Dirigir las actuaciones de la Comisión.

d) Convocar y presidir las sesiones de la Comisión, elaborar las directrices generales para el buen gobierno de las mismas y moderar el desarrollo de los debates.

e) Formular el orden del día de las sesiones de la Comisión.

f) Refrendar con su firma las actas de las sesiones, ordenar la remisión, publicación de los acuerdos, y disponer su cumplimiento.

g) Dirigirse en nombre de la Comisión a instituciones, organismos, entidades, asociaciones, autoridades y particulares.

h) Dekretu hau bete eta betearaztea, Batzordeari bere interpretazioa proposatuz zalantzazko kasuetan, eta integrazioa adierazi gabekoetan.

i) Legean eta Dekretu honetan ematen zaizkion, lehendakari-karguari datxezkion edo Batzordeak eskuordetuta bere gain hartutako, eta, oro har, Dekretu honek beste organo batzuei esleitzen ez dizkien eginkizun guztiak.

*12. artikulua.–* Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren lehendakariordea.

1.– Erakunde sozialetako ordezkarien artetik hautatutako kide bat izango da Batzordearen lehendakariorde.

2.– Lehendakaria oporretan, gaixorik edo kanpoan dagoenean, lehendakariordeak ordezkatuko du eginkizun guztietan.

*13. artikulua.–* Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko idazkaria.

1.– Gizarte-zerbitzuen eremuan eskuduna den sailari atxikitako norbait izango da Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko idazkari, eremu horretan eskuduna den saileko sailburuak izendatuta.

2.– Idazkaria oporretan, gaixorik edo kanpoan dagoenean, Batzordearen bilkuran dagoen kide batek (lehendakaria alde batera utzita) ordezkatuko du, bertaratuek aukeratuta.

3.– Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko idazkariak honako eskumen hauek ditu esleituta:

a) Batzordearen bilkuretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Lehendakariak aginduta, bilkuretarako deialdia egitea.

c) Gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko dokumentu guztiak Batzordeko kideei eskuratzea.

d) Bilkuretara joan eta horien aktak jasotzea, eta hartzen diren erabakiak bideratzea.

e) Kideek zein hirugarren batzuek Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialari aurkeztu nahi dizkioten gai, txosten, proposamen edo dokumentu guztiak bildu, antolatu eta prestatzea, eta horiek guztiak bideratzea dagokien eran.

f) Batzordeak sortzen duen edo eskuragarri duen informazioa dagokien pertsona edo erakundeei helaraztea.

h) Cumplir y hacer cumplir el presente Decreto, proponiendo a la Comisión su interpretación en los casos de dudas y su integración en los de omisión.

i) Cuantas otras funciones se le otorgue en la Ley y en el presente Decreto, sean inherentes a su condición de Presidente o Presidenta o asuma por delegación de la Comisión y, en general, todas las que no estén atribuidas por este Decreto a otros órganos.

*Artículo 12.–* Vicepresidente/a de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.

1.– La o el vicepresidente de la Comisión será desempeñada por un o una representante de las organizaciones sociales que resulte de la elección entre ellas.

2.– En los casos de vacante, enfermedad o ausencia del o la Presidenta, será sustituido o sustituida en la totalidad de sus atribuciones por el o la Vicepresidenta.

*Artículo 13.–* Secretario/a de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia.

1.– La o el Secretario de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia corresponde a una persona adscrita al Departamento competente en materia de servicios sociales, designada por el Consejero o Consejera del Departamento competente en la referida materia.

2.– En los casos de vacante, enfermedad o ausencia del o la Secretaria en las sesiones de la Comisión, será sustituido o sustituida por una o un miembro presente en la sesión, a excepción del o la Presidenta, elegido por las personas presentes.

3.– El o la Secretaria de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia tiene atribuidas las siguientes competencias:

a) Asistir a las sesiones de la Comisión con voz, pero sin voto.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones por orden del o la Presidenta.

c) Mantener a disposición de las y los miembros de la Comisión cuantos documentos se refieran a los asuntos incluidos en el orden del día.

d) Asistir a las sesiones y levantar acta de las mismas, dando el curso correspondiente a los acuerdos que se adopten.

e) La recepción, ordenación y preparación del despacho de todos los asuntos, informes, propuestas o documentos que se desee presentar a la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia, tanto por sus miembros como por terceras personas, y dar a todos ellos la tramitación que proceda.

f) Dar traslado a las personas o instituciones procedentes de la información que origine o de que disponga la Comisión.

g) Fede-emaile gisa jardutea —lehendakariaren oniritziarekin— Batzordearen aktak eta erabakiak egiaztatuz eta, hala badagokio, egiaztapena dagokion aktaren onarpenaren aurrekoa dela esanbidez jasoaraztea.

h) Espedienteak, bere kargura dagoen artxiboa eta dokumentuen sarrerako eta irteerako erregistroa antolatu eta zaintzea, eta organoen eta kideen eskura jartzea, hori eskatzen zaionean.

i) Batzordearen jarduerak azaltzen dituen urteko memoria lantzeko behar diren datu guztiak ematea.

j) Lehendakariak agintzen dizkion edo bere karguari datxezkion kudeaketako eta koordinazioko zeregin guztiak betetzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Haurrak eta Nerabeak zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren lehenengo bilera osatzeko hiru hilabeteko epea izango da, xedapen hau indarrean hasten denetik kontatzen hasita.

Idazkariaren eginkizun nagusia honako hau izango da Batzordearen lehenengo bileraren deialdia egin arte: bilera horretara joan behar duten kide guztien izendapena ziurtatzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urriaren 2an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

g) Actuar de fedatario o fedataria, certificando -con el visto bueno del o la Presidenta- las actas y los acuerdos adoptados por la Comisión, haciendo constar expresamente, en su caso, que la certificación es anterior a la aprobación del acta correspondiente.

h) Organizar y custodiar los expedientes y el archivo a su cargo, así como el registro de entrada y salida de documentos, poniéndolo a disposición de sus órganos y miembros cuando le sea requerida.

i) Facilitar todos los datos que sean oportunos para la elaboración de la memoria anual explicativa de las actividades de la Comisión.

j) Cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por el o la Presidenta, o sean inherentes a su condición.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La primera reunión de la Comisión Permanente Sectorial para la Atención a la Infancia y la Adolescencia habrá de constituirse antes de tres meses desde la entrada en vigor de la presente disposición.

La o el Secretario tendrá como función primordial, hasta la convocatoria de la primera reunión del Consejo, garantizar la designación de todas y todos los vocales que hayan de acudir a dicha reunión.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.